

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

CURSOS DE VERANO
UDAKO IKASTAROAK

Gainditu gabe dugun erronka. Terrorismoa eta hezkuntza Espainian

IRAILAK 27

Ekitaldi Aretoa, Nafarroako Museoa. Iruñea

Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak

Gaztelaniaz

50 ikaspostu

0€

8,5 ordu

Nafarroako museoa

Bukatuta, Concluido

2024ko irailaren 24a arte

Aretoa irisgarria da mugikortasun urria duten pertsonentzat.

Irisgarritasun premiarik baduzu, idatzi

cursosdeverano@unavarra.es helbide elektronikora.

Ikastaro honen helburu nagusia da parte-hartzaileek jakitea zer erronka dauden gaur egun terrorismoari buruzko memoria hezkuntzan txertatzeko.

Ikasgeletan terrorismoaren historia eta memoria irakasteko egiten ari diren ekimenei buruz hausnartzea da helburua. Gazteek iragan horri buruz duten ezagutzaren analititik abiatuko gara, eta dagoeneko gauzatu diren hezkuntza-proiektuetan eta etorkizunerako irekitzen diren ikuspegietan jarriko dugu arreta. Horretarako, iragan hurbileko errealitateari buruz heztearekin loturik inguruan ditugun proiektuei erreparatuko diegu, eta nazioarteko erreferentzia batzuk ere hartuko ditugu kontuan (Kolonbia eta Ipar Irlanda), haien bidez ere aukera izanen baitugu sakontzeko iragan traumatikoa oso presente dagoen testuinguruetan indarkeria politikoaren deslegitimazioari heltzeko dauden zailtasun eta erronka partekatuetan.

Ikastaroa amaitzeko, etorkizuneko proposamenak berrikusiko ditugu, kontuan hartuta, terrorismoaren errealitateari buruz hezteko ahaleginean, hezkuntza-proiektuak, irakasleen ikuspegia eta biktima hezitzaileen eta biktimario damutuen ekarpenak.

NORENTZAT

Unibertsitateko ikasleentzat, ikertzaileentzat eta jende guztiarentzat.

HELBURUAK

Helburu nagusia:

- Terrorismoari buruzko ezagutza hezkuntza-sisteman txertatzeko egungo erronkak aztertzea.

Helburu espezifikoak:

- Eskolako eskuliburuetan terrorismoaren errealitatea nola kontatzen den jakitea.
- Erakustea zer dakiten gaur egun gazteek gure gizartean jasandako terrorismoari buruz.
- Hezkuntzari eta terrorismoari buruzko nazioarteko ekimen batzuk ezagutzea. Zehazki, Kolonbiaren kasua eta Ipar Irlandarena.
- Dagoeneko eginak dauden eta aurrerago egitekoak diren hezkuntza-proiektuak aztertzea, haien zailtasunei eta etorkizunerako irekitzen diren aukerei erreparatuz.

IKASTAROAREN ZUZENDARIA

Marta Rodríguez Fouz. I-Communitas Gizarte Ikerketa Aurreratuko Institutuko ikertzaile berekia. Soziologiako irakasle titularra. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Raúl López Romo, Historia Garaikideko doktorea. Terrorismoaren Biktimak Oroitzeko Zentroaren hezkuntza eta erakusketa arloaren arduraduna.

OSTIRALA 27 IRAILA

9:00 - 9:30

Aurkezpena

9:30 - 10:15 Hitzaldia

Zer dakite gazteek gure terrorismoko iraganari buruz?

Raúl López Romo. Historia Garaikideko doktorea. Terrorismoaren Biktimak Oroitzeko Zentroaren hezkuntza eta erakusketa arloaren arduraduna.

10:15 - 11:00 Hitzaldia

Zer diote eskolako eskuliburuek terrorismoari buruz?

Ander Delgado. Historia Garaikideko doktorea. Gizarte Zientzien Didaktikaren arloko irakaslea. Euskal Herriko Unibertsitatea.

11:00 - 11:45 Hitzaldia

Nafarroako ikasleak: hurbileko errealitate bati buruzko (ez)ezagutza

Marta Rodríguez Fouz. I-Communitas Gizarte Ikerketa Aurreratuko Institutuko ikertzaile berekia. Soziologiako irakasle titularra. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

12:15 - 13:00 Hitzaldia

Kolonbiako trantsizioa eta hezkuntza-proiektuak

Eliana Alemán. Irakasle laguntzaile doktorea. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

13:00-13:45 Hitzaldia

Bazter utzitako erronka bat: Ipar Irlandako terrorismoari buruzko hezkuntza

Henry Patterson. Zientzia Politikoko katedradun emeritua. Ulsterreko Unibertsitatea.

16:00 - 16:45 Hitzaldia

Hezkuntza-proiektuak: balantzea eta ikuspegiak

José M^a Pérez-Agote. I-Communitas Gizarte Ikerketa Aurreratuko Institutuko ikertzailea. Soziologiako kontratupeko irakasle doktorea. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

16:45 - 17:30 Hitzaldia

**Hezkuntzarako planteamendua terrorismoaren prebentzioari buruz:
irakaskuntzaren ikuspegia**

Julia Gracia García, Hezkuntzako Teknologietako eta Irakasleen Prestakuntzako Institutu Nazionaleko irakasleen aholkulari teknikoa (INTEF).

Manuel Moyano. Psikologia Sozialeko irakasle titularra. Kordobako Unibertsitatea.

17:30 - 18:15 Hitzaldia

Biktima hezitzaileen eta biktimario damutuen ekarpenak

Izaskun Sáez de la Fuente. Etika Aplikatuaren Zentroko ikertzailea. Soziologiako eta Zientzia Politikoko irakaslea. Deustuko Unibertsitatea.

18:15

Ikastaroa bukatzeko ekitaldia

ANTOLATZAILEA

Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroaren Fundazioa, Terrorismoaren Biktimen Fundazioa

BESTE ANTOLATZAILE BATZUK

II-Communitas Gizarte Ikerketa Aurreratuko Institutua

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa



**CENTRO
MEMORIAL
DE LAS VÍCTIMAS
DEL TERRORISMO**

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



LAGUNTZAILEA

Nafarroako Gobernua

FINANTZATZAILEA

Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroaren Fundazioa

Terrorismoaren Biktimen Fundazioa